

# ...eta kitto!

721 zkia. 2010-V-14

ASTEKARIA

TOKIKOM



Hilaren 22an  
"Tantanez  
tantan"

## Euskara freskatzen

### "Entzumen kalitateak bizi kalitatea dakar"

Entzumen Kalitatea Hobetzeko Plana jarri du martxoan GAESak.  
Plan hori esker honako abantailak izango dituzu:

- 1 Entzumenari buruzko aholkularitza **DOAN**
- 2 Ordainketa erraztasunak entzumen-laguntzetarako
- 3 Opari bat, etortze hutsagatik



Entzumen Kalitatea  
Hobetzeko Plana

Maiatzaren  
31ra  
arte

Bidebarrieta, 2

Tel.: 943 20 61 14

**GAES**  
Entzumen Dientza

Murillo doktorea,  
Madrilgo unibertsitatean  
aho-inplantologian masterra  
eta Espainiako Inplante El-  
kartean implantologia  
aurreratua diplomatura  
eskuratzeaz gain, Nueva Yor-  
keko Unibertsitateko  
Kliniketan sarritan  
jardundakoa da. Bere  
ibilbide profesionalan 4.500  
inplantetik gora ipini ditu,  
%95'7ko arrakastarekin.

Pazienteei protesiak  
ipintzeko hainbat aukera  
daukagu. Portzelana edo  
akrilikoz egindako  
**BEHIN-BETIKO PROTESIEN**  
eta **PROTESI ERAUZGARRI**  
akrilikoen arteko bereizketa  
egiten dugu.

- Behin-betiko protesiak  
ahotik kendu ezin  
daitezkeenak dira.
- Protesi erauzgarriak  
inplanteekin josita  
daudenak dira, horrela  
ez mugitzeko.



#### PROTESI MOTAK

**Portzelanazko edo  
zirkoniozko behin-betiko  
hortzetako zorroak:** material  
onenak emaitza onenekin.

1. Natural eta estetikoak,  
hortza ezin hobeto  
imitatzen du.
2. %100 biobateragarria.  
Ez du inolako hanturarik  
sortzen ahoan.
3. Puntako teknologiako  
materialak: portzelana  
eta zirkonioa.
4. Inplanteak ale  
bakarrekoak izan  
daitezke, bikoak  
(gutxienez) zubiak  
egiteko edo 8 inplante  
erabili ditzazkeguko  
maxilarra zein  
masailezurra oso-osorik  
birgaitzeko.
5. Berme osoarekin.

**Behin-betiko protesi  
hibridoak:** behin-betiko  
protesia izatearen  
konfidantza. Berririo  
segurtasunez mastekatzeko.

#### Protesiak: BEHIN-BETIKO ZORROAK



# IRAZABAL

## clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

## Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duelako

### GURE PAZIENTEETAN LORTUTAKO EMAITZAK erakusten dizkizugu




**ANTONIO MURILLO** doktorea



**AINHOA ZULUETA** doktorea


## Tratamendu aurreratuenak Irazabal Hartz Kliniketan

#### Protesiak: HORTZERI-GAINEKOA



1. Hortzoian edo hezurreen  
galera handia dagoen  
kasuetarako  
gomendagarria.
2. Hortz guztiak falta  
direnean. Bakarrik  
6 inplanteekin goiko  
maxilarraren edo  
masailezuraren  
**BEHIN-BETIKO** ortzeria  
ipiniko dizugu.
3. Hortzeria akrilikoa da  
kalitate handiko hortzekin  
eta ahosabairik gabe.
4. Berme osoarekin.

**Hortzeri-gainekoa:** ordezko  
hortzeriak ez dira beste  
inoiz mugituko; pasta  
eta itsasgarriak betirako  
bartzertzeko.



1. Kalitate handiko  
akrilikozko ordezko  
hortzeria da,  
hortz-inplanteekin  
josten dena.



#### NOLA IPINTZEN DITUGU INPLANTEAK?

Ahaztu mina. Ohiko inplante  
batek 5 minutu irauten digu.  
Anestesia lokala erabiltzen  
dugu, enpasteetan moduan.

**Hortz-erauzketaren ondoren  
ipinitako inplanteak:** hortza  
ateratzen den egun berean  
ipintzen ditugu inplanteak.  
Orbaintze-denborak laburtu  
egiten ditugu. Tratamendua  
lehenago amaitzen da.

**Kirurgia gabeko inplanteak:**  
hezurraren egoera

#### Inplanteak: KIRURGIA GABEKOAK



2. Protesia ez da  
kulunkatzen ezta  
mugitzen ere hitz egitean  
edo mastekatzean.
3. 3 segundotan kendu  
dezakegu garbitzeko.
4. Ordezko hortzeria izanda,  
berau mugitzen  
zaionarendako aproposa.
5. Kasuaren arabera,  
bakarrik 2 edo 4 inplante  
ipini beharko ditugu  
inplanteekin egindako  
hortzeria osoa batean.
6. Berme osoarekin.

ezinhobea bada, inplanteak  
puntuak eman barik ipini  
daitezke. Ebakuntza ostekoa  
perfektua da, hantura  
eta minik barikoa.

**Berehalako karga:**  
behin-betiko hortzeria  
inplanteak ipintzen ditugun  
egun beretik. Ez dago  
itxaron beharrik.

**Aukera guzti hauek  
eta gehiago eskaintzen  
dizugu Irazabal  
Hartz Kliniketan.  
KONTSULTATU LASAI.**



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALA:**

J.L. Gorostegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**GANTXIL.-** Txongil, pegar, potijo. Gaztelarazko 'botijo'. "Lanteixetan, pitxarra baiño hobe da gantxilla".

**GANTZAK ALKAR JO.-** Bapateko heriotza adierazteko. Loditasunarekin zerikusia ei du. "Gantzak alkar jota hil ei da bart bere ohian".

**GARAGARRAK IRABAZTEN / GARRAGARRAK(A) EGIN.-** Astoak eta zaldiak lurrean zilipurdika ibiltzen direnean. "Plaza ostian astua garagarrak irabazten ikusi dogu". "Astuari garragarrika egittia etorri jakon burura plaza erdi erdixan".

## ESKUTITZAK

### — OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldiizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Emakumeak, euren buruaren jabe direnetik, barruko mundua berregituratzeko kapaz diren bakarrak dira. Emakumeak ez daude gizonen aurka; emakumeak emakume eta gizon dira aldi berean, baina gizonek ez dute emakume izan nahi. Gizonen esku daude armak, botere politikoa eta ekonomikoa; baina dagoeneko agerian dago hitza galdu dutela, eta emakumeen diskurtsoa dela entzuten ari dena."

(Alain Touraine, soziologoa)

"Askoz arrikutsuagoa da, mozkortuta bazaude, etxera oinez bueltatzea autoan egitea baino; hori bai, autoarekin bateran bat hil dezakezula kenduta. Baina, bestela, mozkortuta autoa gidatzen baduzu, istripua izanda ere ez du zertan hilkorra izan behar. Baina kaltetik mozkortuta bazoaz, litekeena da auto batek harrapatzea eta bertan akabatzea. Ez da komeni mozkortuta gidatzea, baina oinez joatea ez da segurua"

(Stephen J. Dubner, idazlea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### ARDANTZAKO ATERPEAK ITXITA

Ardantzako 11, 13 eta 15eko bizilagunek Udalaren baimena jaso dute euren aterpeak itxeko. Bizilagunek itxeko eskaera luzatu zioten Udalari bertan biltzen diren gazteek sortzen dituzten arazoan ondorioz, batez ere asteburuetan.

### ZEHAZTASUN INGENIARITZAKO TALENTUAK

EHU-ko hiru ikasle izan dira Tekniker-IK4 eta EHU-k antolatutako Euspen Challenge 2010 zehaztasun ingeneritza ekimeneko irabazleak. David Olvera, Asier Fernandez eta Federico Ivan Compean Herbeheretan eta Alemanian beste herrialdeetako talentuen aurka arituko dira orain.

## Arte eta arkitektura ikusgai museoan

**MANUEL ZABALAREN EIBARKO ERAIKUNTZEN MAKETEK HARTUKO DUTE ARMAGINTZAREN MUSEOA GAURTIK UZTAILAREN 23-RA ARTE** 'Artea eta arkitektura Eibarren' izenburupean. Zabalak egindako 13 maketa museoaren sarreran egongo dira ikusgai eta sarrera doakoa izango da.

Maiatzaren 18an, bestetik, Museoaren Eguna ospatuko da. 'Gizarte armonia' izenburupean antolatutako ipuin lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira egun horretan 19.00etan eta honakoak dira irabazleak: Gazteen artean gaztelerazkoen mailan ez da saririk banatu eta euskerazkoen



artean Jone Olabarrigaonak lortu du 3. saria. 16 urtetik gorakoenen mailan, bestetik, Oihane Uruñielak lortu du 1. saria gazteleran eta Jaione Gisasolak euskeraz.

## Erosketa-txekeen zozketa hilero




**MERKATU PLAZAKO DENDARIEK, SALMENTEI BULTZADA EMAN ETA EROSLEAK SARITZEKO ASMOAREKIN**, kanpaina berezia ipini dute martxan: maiatzean hasi eta abendura bitartean, zazpi hilabetez, 25 euroko balioa duten 24 erosketa-txeke zozketatuko ditu plazan erosten dutenen artean eta, horrez gain, 200 euroko txartelaren zozketa berezia egingo dute. Abenduan, Gabonen bueltan, kanpaina indartu egingo dutela aurreratu dute dendariak, sari potoloagoak emanda: urte amaieran 50 erosketa-txeke banatzea aurreikusitako dute (25 euroko 48 txeke eta 500 euroko bi).

## Adingabeak artatzeko ereduaren hitzaldia

**ARALARREK ADINGABEAK ARTATZEKO ERE- DUEI BURUZKO HITZALDI IREKIA EGINGO DU** maiatzaren 20an Kultun 19.00etan. Hitzaldian Aitor Zaldúa Zumarragako Ibai Ondo adingabeen zentroko

hezitzailea eta Jose Barrio Urdanetakoak gizarteratze-ko elkartearen zuzendariak hartuko dute parte, biak gaian adituak. Ordu bete iraungo du hitzaldiak eta adingabeak artatzeko ereduak azalduko dira.





# ESTUDIOS ARRILLAGA

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK**

**LOKALAK  
ETXEBIZITZAK**



**Arragueta, 12 EIBAR**  
Tel. 943 20 06 98

**ELGOIBAR Errosario, 15**  
Tel. 943 74 40 19



● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan      Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK
● ESKELAK
● HILARRIAK
● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 Fax: 943 202564





## Hirigintza foroa martxan

**HIRIGINTZA KONTSEILUA JARRI ZUTEN MARTXAN ASTELEHENEAN EIBARKO UDALAK ETA HERRIKO SEI ELKARTEK** (Ikasten, Maixa, Astindu, La Plazoleta, Gutxietuen Elkarte eta Dendarien Elkarte). Kontseiluaren helburua hirigintza antolamenduan kontsulta, informea eta proposamenak egitea da.

Eneko Andueza Udaleko Hirigintza arduradunaren berbetan, *“kontseilua proiektuak hobetu eta proposamenak aurkezteko foroa da”*. Anduezak

aipatu zuenez, *“erabakiek ez dute izaera loteslea izango, baina zabalik gaude etorkizuneko proiektuak gauzatzeko proposamen aberasgarriak jasotzeko”*. Astinduko Irene Zarrauak, bestetik, aipatu zuen eszeptizismoz ikusi zuen bileran, *“ez zegoelako argi elkartearen iritzia benetan kontuan hartuko den”*. Gainontzeko elkartearen ustez ordezkartza nahiko handia da, baina konfidantzazko botua ematen diote kontseiluari eta herritarrak ea kontuan hartzen dituen ikusi nahi dute.



## Zerbitzu berriak Egogainen

**MAITE ETXANIZ FORU DIPUTATUAK EGOGAINEKO EGOITZAREN ZERBITZU BERRIAK INAUGURATU ZITUEN ATZO.** Etxanizek Psikogeriatria unitatea bisitatu zuen Egogainen eta, ondoren, Ardantzan dauden Produktu Lagungarrien Etxetek Zerbitzuak eta Baloraziorako Foru Zerbitzuak ikusi ahal izan zituen.

Psikogeriatria unitateak 13 pertsonarentzako zerbitzuak eskainiko ditu. Etxetek, bestalde, gutxituentzako produktuak eskaintzen ditu, eta Balorazio Zerbitzuan pertsona baten gaigabezia eta menpekotasuna baloratzen da. Unitate bien kostua 566.000 eurotakoan izan da eta ekipamenduaren 20.000 eurotakoan.

## anzorik anzo



## Galiziako jaiak Urkizu beteko du

**Gaur arratsaldean hasi eta domeka iluntzera arte As Burgas Galiziako Etxeak XXVII. Dia Das Letras Galegas ospatuko du.** Barixakuan, 19.00etan zabalduko dute Jai Batzordearen taberna eta, jarraian, herri-kirol erakustaldia eskainiko dute Ernesto Ezpeleta “Bihurri”, Peio Etxeberria eta Hodei Ezpeleta aizkolariak. Iparraldeko jokoentzat tartea ere izango da eta, ondoren, 21.00etatik aurrera eta goizaldera arte, Principal orkestrarekin dantzan jarduteko aukera izango da (atsedenaldietan, Galiziako Etxearen “Zarangallada” taldeak joko du) Urkizuko parkean. Zapatuan, berriz, ekitaldiak goizetik hasiko dira, 11.30etako umeendako “chave” jaurtiketarekin. Igel-toka eta helduendako “chave” jaurtiketa jokatu ondoren, 18.00etan Doce Lembranzas Barakaldoko gaita-taldeari harrera egingo diete eta, arratsalde osoan, Galiziako musika eta dantzak izango dira protagonista, 22.30etan Passarela orkestrarekin berbera hasi arte. Eta domekan, Untzagan Eibarko Trikitilariak eta Kezka eta Azahar (sevillanak) dantza taldeei harrera egin ondoren, kalejiran joango dira Urkizuraino, bertan dantza erakustaldia eskaintzeko. Arrate hotzelean egingo den bazkariaren ondoren, 18.30etan Pasito Show orkestrarekin dantzaldia hasiko da eta 22.00ak aldera aurtengo jaiak agurtuko dituzte.

## eibar kalea

### Bolingua kalea

Izen bereko baserriak ematen dio izena Errekaturtik gora doan kaleari. Egoibarra batzordeak jasota duenez, Bolingoa / Bolingua (Kiñarra) baserriaren inguruko lehen aipamena 1800 urtekoa da-eta. XX. mendearen hasieran hirutan banatzen zen baserria eta 1925eko hiru ugazabak Pedro Ubera, Juan Oiarzun eta Jose Alzelai ziren. Gerora, baserria bitan banatuta geratu zen.

**Pegora kopurua: 4. Erroldatutakoak: 25.**



**asteko**  
**136.555**  
**datua**

euroko aurrekontua du Juan Antonio Mogelen egingo den igogailuak.

Excavaciones Fresnedaren proiektua lizitazio prezioa baino 60.000 euro merkeagoa da. Hasi dira lanean eta hiru hilabeteen amaizeko asmoa dago.

Igogailuak 195 etxebizitzetara emango die zerbitzua eta 3,76 metroko ibilbidea izango du. Zortzi bat lagun sartu ahal izango dira, plataforma birenkin: bat aurretik eta bestea 180 gradutara.

## Gaurtik aurrera ospatuko da Internet Eguna

**GAUR HASI ETA ASTELEHENERA ARTE, INTERNET EGUNA OSPATUKO DA EIBARREN, ASTELENA FRONTOIAN.** Beste edizio batzuetako esperientziari jarraituta, frontoian "nabigazio libreko" gunea egokituko da, eremu bitan bereizita: bata haur eta gazteentzat prestatutakoa izango da eta bestea, berriz, helduentzat. 70 ordenagailu erabiltzeko moduan ipiniko dituzte eta, horrez gain, hainbat erakundek standak jarriko dituzte, "zerbitzu eta eduki interesgarriak eskaintzeko". Besteak beste, Internet&Euskadik, EuskaDigital-Arrate Irratiak, Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltelek jarriko dituzte standak. Horiekin batera eta asteburu osoan, merkatuan gehien eskatzen diren jolasak ere egongo dira eskura, hala nola, "Wii Fit" eta adimena irakurtzen duen "Mindball". Azken jolas horretan, bi jokalariren




70 ordenagailu izango dira, besteak beste, Astelenan.

buruan konektatutako sentsoreek garunaren jarduerara jasotzen dute. Zenbat eta lasaiago egon, hobeto erabiliko du pelota jokalaria. Egitaraua eta eskaintza osoa kontsultatzeko [www.ieguna.net](http://www.ieguna.net) helbidera jo daiteke.

## Carlos III.a Saria eman diote Sarasketa eskopetagineari

**ESPAINIAKO EHIZTARIEN ERRET FEDERAZIOAK EMATEN DITUEN SARIEN ARTEAN GARRANTZITSUENA,** Carlos III.a Saria Juan Antonio Sarasketa eskopetagine eibartarrari emango diote aurten, Madrilen hilaren 22an egingo

den ekitaldi bereziaren testu-guruan: ehizaren inguruko gala eta urteko batzar nagusia batera hartuko ditu Kongreso Jaurregiak eta, egunerako prestatu duten egitarauari jarraituta, Sarasketak bere saria jasoko du, Ehiza Federazioak saritzea




erabaki dituen beste lagunekin batera. Carlos III.a Saria 1989an sortu zuten, ehiztari garrantzitsua izan zen erregea gogoan, ehizaren babes eta zabalkunderako egindako beharri errekonozimendua egiteko asmoarekin. Sarasketak baino lehen saria jaso dutenen artean oso jende ezaguna dago, besteak beste Juan Carlos I.a Espainiako Erregea.

## San Andres pasealekua itxita


**TRENBIDEA BITAN BANATZEKO BEHARRAK DIRELA ETA, GAUR 00.00ETAN ERREPIDEA MOZTUKO DUTE** eta, beraz,

ezin izango da ibilgailurik bertatik ibili, zapatu arratsaldeko 15.00ak arte. Errepidea moztuta dagoen bitartean, Bilboko norantzan joan behar duten automobilerik Ego Gain kaletik, ohikoaren kontrako norantzan joan beharko dira. Bestalde, beharrik amaitzean eta errepidea berriz ere zabaltzen dutenean, asteburuoro egiten den moduan, erdigunea oinezkoentzat zabali eta trafikoarentzat itxita egongo da.

Donostia, Gasteiz, Iruña eta Eskoriatzarako autobusak, berriz, Untzagan (plazan) geratuko dira bidaiariak hartzeko.



## AMAIA GONZALEZ GANBOA



*Zu joan zara, baina, zureganako GURE MAITASUNA ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ILUSIOA ETA BIZIPOZA.*

*Ikastolako afarietako zure lagunak ez zaitugu ahaztuko ROSA, LOLI, BELEN, MARI PAZ, ARANTXA ETA LURDES*




*Eusko Legebiltzarrak taberna eta diskoteken ordutegixa luzatu ahal izatia aztertzea eskatu detsa Eusko Jaurlaritzari. Eudel, beran aldetik, honen kontra agertu da. Gabeko aisialdixa bultzatzea da asmua ideiarene bultzatzaillien berbetan, baiña Eudelek bizilagunen atsedena jokuan daguala esaten dau.*

## Zer begittantzen jatzu tabernen ordutegixa luzatzia?



**EDURNE FUENTE**  
44 urte  
etxeakoandria

Ba pixkat motzak egitten jatzaz gabak urtetzen naizenian. Pixkat beranduago itxiko nittuzke tabernak, ez dakitt, ordu bat gehixago eukiko nittuan zabalik. Egixa esan, tabernak ixterakuan egonian egoten zara eta luzatzen da pixka bat gaba, baiña bestela motz gelditzen da.




**ADRIAN HERRERA**  
19 urte  
ikaslia

Begittantzen jata oin daguan moduan ondo daguala. Eibarren tabernak ixten diranian Punto y Aparte eta Ryder dakaguz, adibidez, denbora gehixago egoteko. Halanda be, tabernen ordutegixa luzatzen bada, jendiak gehixago konsumiduko dau eta horrek dirua emongo detsa herrixari.


**PILAR PINILLA**  
40 urte  
psikologua

Egixa esan ez dakitt zehazki gaur egunian tabernak gabetan zein ordutan ixten daben be. Ni gitxitan urtetzen naiz gabaz, baiña begittantzen jata gaur egunian daguzen ordutegixak ondo daguzela ipiñitta. Nik behintzat ez dot gehixago bihar.



**XABIER ETXEBERRIA**  
17 urte  
ikaslia

Eibarren, adibidez, tabernak 04.00ak arte egoten dira zabalik gitxi gora behera, eta gero Ryder edo Punto y Apartera jua bihar zara kalia jarraitu nahi badozu. Nik pentsatzen dot taberna gehixagok jarraitu biharko ebela zabalik, horrek bixak txiki geratzen jakuzelako.



## Helbidea

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ **943 12 02 00** ☎ **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Analsi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
<b>BERRIA:</b> Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

## LOKALA SALGAI

Azitaingo Industrialdearen  
bulego eraikinean.  
**20 metro** karratu.  
1. Solairua.  
**Biltegirako** egokia.  
Sekulako **prezioa**.  
Finantziazio **erraztasunak**.

**Deba Beheko Industrialdea S.A.**

gibitearriko gureti  
espeziu para la transformacion
**DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA**

Tfnoa. 943 74 11 26 Faxa. 943 74 41 14  
E-maila: debabeheko@industrialdea.spri.es

*Inongo aldaketa genetiko, osagai kimiko, pestizida edo antzekorik erabili gabe (besteak beste) lortutakoak dira produktu ekologikoak bezala ezagutzen direnak. Horiek Eibarko herritarren (eta hurbiltzen den edonoren) eskuetan jartzeko sarea eratu dute hainbat lagunek: produktu ekologikoen kontsumo elkartea.*

## Baserritik etxera, zuzenean

Sasoian sasoiko produktu ekologikoak banatzen dituen kontsumo elkar-tea osatu dugu”, diote elkar-tekoek. Hasi besterik ez dira egin, baina badira 30 bat bazkide eta haztea da euren helburua. “60 bat izatera iristea gustatuko litzaiguke, pentsatzen baitugu kopuru horrekin izan daitekeela bideragarria proiektu hau”.

Juan Gisasolako lokal batean biltzen dira kideak, ‘Badana’ produktu ekologikoen denda zegoen tokian. Modu batean, denda honek utzitako lekua betetzen du elkar-te berriak, “ondoegi ohi-tu ginen eta produktu ekologikoak kontsumitzen jarraitu nahi dugu”, dio kide batek.

‘Badana’-ren lokalean eguaz-tenero mota biko otarrak egoten dira. Bata pertsona biko familia-arentzat pentsatuta eta bestea lau pertsonatakoarentzat. Aste bat lehenago kide bakoitzak zenbat eraman nahi duen zehaztu eta astebete barru jasozten du erositakoa. Otarretan, bestetik, sasoian sasoiko produktuak, Eibarko Sosola, Elgoi-


barko Txilarre eta Itziarko Doniena baserrietatik zuzenean datozenak.

### Beroko eta sasoiko produktuak

Produktuen aukera zabala biltzen dute, “ez bakarrik 3 edo 4 barazki”. Maiatza hilabete eskasena dela diote kideek (onena iraila da), baina horrela bada ere, orain momentuan kontsumitu daitezkeen produktuak asko dira: ziazerbak, porruak, tipulinak, baba beltzak, espinakak,




‘Badana’ produktu ekologikoen denda zegoen Juan Gisasolako lokalean hartzen dituzte produktuak elkar-tekoek.



berakatzak, ilarrak... Eta arrautzak, ogia eta gazta ere eskuragai daude. Eskaintzaren artean, produktu galkorrak (erraz usteltzen direnak, hau da, fruituak, barazkiak...) eta ez galkorrak (gehiago irauten dutenak, hau da, patatak, lekaleak, kalabazak...) aurki daitezke.

Elkar-teak eskaintzen dituen produktuen ekoizleak inguruko baserriak dira, izan ere, elkar-tearen helburuetariko bat bailara-ko baserriei laguntzea da, gertuko harremana lantzea eta inguruko barazkiak kontsumitzearen gainean kultura bat sustatzea.

Ekoizle hauen nekaza-



ritza produktuek naturaren eritimo naturala errespetatzen dute, ez dute sustatzaile kimikorik eta hauen ekoizpenean luraren on-garritzea naturala da. Horrek moteldu egiten du prozesua, baina ez du kutsatzen eta produktuaren kalitatea handiagoa da. Eta hori abeltzaintza produktu eta ogiarekin ere, ekoizteko ez baita inongo tratamendu kimikorik erabiltzen.

### 19an bilera Kultur

Produktu ekologikoen kontsumo elkar-tea honek lehen pausoa eman ditu, baina maiatzaren 19an, eguaztenean, bilera informatiboa egingo dute Kultur 19.00etatik aurrera. Taldearen funtzionamenduak, ezaugarriak, produktuen gaineko informazioa, bazkide izateko eginbeharrak eta beste zenbait azalpen eskainiko dira. Taldea elkarlanean aritzen da guztiz, denok kolaboratzen dute zereginetan. Kide bakoitzak kuota bat ordaintzen du lokala mantentzeko, baina zenbat eta kide gehiago izan, gero eta gutxiago ordaindu behar du bakoitzak.

## OSCAR BARRENETXE ARZELUS

(9. urteurrena)

ZURE FAMILIA GUZTIAK MAITASUNEZ

Maite zaitugu





## SARA BILBATUA, casting zuzendaria

# “Pertsona onak dira Almodovar eta Medem”

- **Casting zuzendaria zara, baina zertan datza zehazki zure lana?**

Zentzu orokorrean, pertsonaia baten profilari egokitzen zaion aktoreak proposatzean da nire lana.

- **Nola egiten diozu aurre casting bati, zu izanda aurrean dauden aktoreak ‘epaitzen’ dituen?**

Egoera horren aurrean daukadan jarrera laborala da soilik, ez besterik. Gero, castinga egiteko prozesuari dagokionez, hori proiektuaren arabera izango da, denboraren eta proiektuaren beraren beharizana zehazki.

- **Nola aurkitzen da aktore egokia?**

Askotan aktoreen merkatuan aurkitzen dituzu interesatzen zaizkizun profesionalak, eta beste batzutan gehiago landu behar izaten da. Izan ere, batzutan bilatzen den profila konplexuagoa da, umeekin eta pertsona oso gazteekin gertatzen den moduan.

- **Bilaketa horretan zenbate-rainoko balioa dauka senak?**

Senak laguntzen du, baina gauza erabakigarriena aktorearen gaitasuna da, eurek duten

teknika, garapen profesionala, irudia, eta abar.

- **Zure lana castinga egitearekin amaitzen da, ala pelikula edo telesailak martxan dirauen bitartean jarraitzen du?**

Normalean castinga amaitzearekin batera amaitzen da nire lana ere, batez ere pelikuletan. Telesailetan, bestalde, nire lanak jarraitu egiten du aldi baterako egoten diren pertsonaiekin.

- **Zine zuzendari handiekin eta pelikula arrakastatsuetan egin duzu lan. Nola sentiarazten dizu horrek pertsonalki?**

Pertsonalki asko gustatu zait eurekin lan egin ahal izana. Oso interesgarria da mota askotako pertsonekin lan egitea, hala ere, proiektuak onak eta sormen handikoak badira, bultzada handiagoa sentitzen duzu.

- **Nolakoak dira Pedro Almodovar, Julio Medem eta gainerakoekin moduko zuzendari handiak?**



Esperientzia handia du Sara Bilbatuak zine casting-aren munduan eta titulu ospetsuak daude bere curriculumean.

Zuzendari bi horiek, konkretuki, oso pertsona onak dira.

- **Zinema munduko zenbat aktore arrakastatsu pasatu dira zure begien aurretik casting batean?**

Nahikoa.

- **Ondo hartzen dute aurkeztu diren paper horretarako ez aukeratzea?**

Hori, azken batean, euren lanaren zati bat da. Gainera, aipatu behar da paper bat egiteko aukeratzea gauza askok baldintzatzen duela. Uste dut, edozein lanetan bezala, denerik egongo dela, auzi hori dela-eta.


‘Hable con ella’, ‘La Soledad’, ‘El laberinto del Fauno’, ‘Todo sobre mi madre’ pelikuletan, eta ‘Amar en tiempos revueltos’ eta ‘La señora’ moduko telesailetakoko casting zuzendaria izan da Sara Bilbatua. Zalantza gabe, izen handia dauka eibartarrak zinearen munduan.

- **Psikologia eta antzerki interpretazioa ikasi zenuen. Nola heldu da Sara Bilbatua casting zuzendaria izatera?**

Madrilgo gauetan antzerki eta cabaret taldeekin hasi nintzen lanean. Horren ostean zinea etorri zen, eta ekoizpenean eta zuzendaritzan hasi nintzen lanean. Azkenean, zuri-beltzean egindako pelikula independente batean hasi nintzen casting zuzendari. “Justino” zuen izenburua. Hirugarren adineko hiltzaile baten istorioa kontatzen zen eta Sitgeseko Zine Jaialdian pelikula onenaren saria jaso zuen.

- **Javier Agirresarobe eta zurekin eibartarren presentzia zinema munduan maila handikoa da. Zer deritzozu?**

Eskerrik asko lorengatik. Zoragarria dela iruditzen zait. Seguru nago Eibarrek hau horrela izaten lagundu duela moduren batean.



## CARLA IGLESIAS GARCÍA beti gure bihotzean egongo zara

García familiaren partez,  
eskerrik asko une zail hauetan  
lagundu diguzuen guztioi.



*Urteroko moduan, urte batetik bestera eguna aldatzen juaten bada be, Debegesa Debarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak Ekintzailearen Eguna antolatu dau maiatzaren 20rako, datorren egunerako. Arratsaldian garatuko dan programaziñua osatzen daben jarduerak Debegesaren egoitzan, Azittaingo industrialdian egingo dira. Euren kontura negoziñua edo enpresa ipintzera animatzen diranak gogoratzeko egun bat aukeratzen badabe be, Debegesak urte osuan holako jendiari laguntasuna emoteko zerbitzu eta bestelakuak eskintzen dittuala azpimarratu nahi dau. Debarrenian betidanik izaera ekintzaillia nagusi izan dala diñue eta gero eta gehixago dira, biharra enpresaren batian billatzen jardun barik, euren kontura biditari ekitera animatzen diranak.*

**E**kitaldi nagusixa datorren eguenekua izango da, baiña egun horren aitzakixarekin beste ekimen batzuk garatuko dira aurretik eta ostian. Bestiak beste, aste honetan bertan autoenplegurako taillarrak eskindu dittue Mallabia, Eibar eta Soralezuko Kzgunietan eta datozen egunetan gauza bera egingo dabe Elgoibarren, Mendaron,



## Debarrenean etenbarik ekinean

Deban eta Mutrikun. Gaiñera, Debegesaren egoitzaren sarre-ran, autoenpleguaren eta ekintzaillitasunaren gaiñeko informaziño osua topau leikie horretan interesa daken guztiak eta, nahi izanez gero, Debegesako teknikarixa be hantxe egongo da, biharrezko azalpen eta esplikaziño guztiak emoteko gertu.

Halanda be, aurten maiatzaren 20xa izango da egun haundixa. Aurreratu dogun moduan, ekitaldi nagusixa 18.00etatik aurrera hasiko da Debegesan, parte hartuko dabeneri harrerria egittiarekin batera. Goguan izan ekitaldixan parte hartzia nahi dabenak aurretik izena emon biharko dabela, debegesa 2010@gmail.com helbidera idatzitta edo 944 700 743 telefono zenbakira deittuta.

### Aukera barrixak ezagutzera emoten

Jarraixan, 18.30xak arte “Debarrena Ekinean!” Enpresen azoka bisitatzeko aukeria izango dabe partehartzailliak eta, ondoren, ekitaldixaren hasieria aillergauko da, Debegesako ordezkariak egingo daben aurkezpenarekin. Gero, “Business Angels Euskadin” izenburuari

jarraitutako jardunari ekingo detse, enpresa proiektu barrixak finantziatzeko eta inbersiño pribaturako modu barrixak azaltzeko. Horren ostian, 19.30xak aldera, Debarrenako enpresa-esperientzia barritzailliak ezagutzeko aukeria egongo da, gaixarekin lotutako beste hainbat konturekin batera, eta Debarrena Ekinean! eta Bai Industriari! Errekonozimenduak banatuko dittue, ekitaldixa agurtu aurretik.

Ekimen guztiak Eusko Jaur-laritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saillak diruz laguntzen dittu. Bestalde, egunian bertan Debegesara juateko garraio publikua erabilli nahi dabenak horretarako aukeria izango dau, Udalbus zerbitzu berezixa egongo dalako: 18.18-



## AMAIA GONZALEZ

*Irribarrea eta apaltasuna soinean  
borondate izugarria lanean,  
honelakoa ezagutu zintugun taldean  
eta horrela gordeko zaitugu oroimenean.*

**ERREBAL PLATAFORMAko kideak**

xetan Azittaingo geltokitik urten-  
go dau Udalbusak, Debegesara  
joateko.

**Urte osuan Debabarrena  
Ekinean!**

Egueneko ekitaldixarekin  
ekintzaille edo enprededoria-  
ren figurari nolabaitteko ome-  
naldi edo errekonozimendua es-  
kindu nahi jako, baiña Debege-  
satik azpimarratu deskuenez,  
urte osuan holako jendiari lagun-  
tzeko prest dagoz, horretarako  
zerbitzu berezixa dake-eta: *“De-  
begesak, Debabarrena Ekinean!  
Izenekuaren bittartez, negozi-  
xoa edo enpresa barrixa martxan  
ipintzeko asmua daken herrita-  
rrei aholkularitza eta laguntza  
pertsonalizaua eskintzen detse.  
Horregaittik, ideiarene bat buruan  
buelbaka darabilen guztiak ani-  
mau nahi dittugu, gurekin harre-  
manetan ipiñi eta igual erreali-  
dade bihurtu leikialako”.*

Enpresa martxan ipintzeko



laguntasuna emotiaz ez eze,  
beste pauso batzuk emoterako  
orduan be laguntasuna eskin-  
tzen dabe garapenerako agen-  
tziatik: *“Behiñ enpresia martxan  
ipiñitta, gure zeregiña ez da ho-  
rretan geratzen. Izan be, enpre-  
sa hasi barrixerri aholkularitza  
zerbitzua emoten segitzen dogu  
eta, ikasturtian zihar, hainbat  
jardunaldi eta ikastaro antola-  
tzen dittugu, enpresaren kudea-*

*ketia ahalik eta egokixena eta  
eraginkorrena izateko ahalegi-  
ñetan. Azken batian, zerbitzua-  
ren helburua ekintzaillien enpre-  
sa-ideia edo proiektuak gauza-  
tzen ahalik eta laguntasunik  
haundixena emotia da eta, pro-  
zesu horretan, bidian dagaizen  
fase guztietan lagunduko deta-  
gu Debegesako ekintzaillienda-  
ko zerbitzutik, hasi ideia biribil-  
tzetik eta harik eta ideia hori  
errealdade bihurtzeraiño”.*

**Diru-laguntzetarako  
erreztasunak**

Bestiak beste, aittatutako  
guztiekin batera diru-laguntzen  
gaiñeko informaziño osua  
emoten jakue ekintzaillieri, bai-  
tta mailleguak modu onian,  
kondiziño berezixetan, lortzeko  
bidien barri be.

Debegesatik azaldu desku-  
enez, “etenbarik enpresa-ideiak  
dituzteneri zuzenduta dagua-  
zen ikastaruak antolatzen dit-  
tu-

gu. Izan be, Debegesan barri-  
kuntzari aparteko garrantzixa  
emoten detsagu. Azken batian,  
enpresa ideia barrizaiilliekin,  
Debabarreneko enpresa-sarea  
zabaldu eta dibertsifikatzeko  
bidia be zabaltzen dogu”.

Gogogorutzen deskuenez,  
aholkuak emoteko orduan arlo  
diferentietan adituak diran tek-  
nikuak dagoz eurekin biha-  
rrian: *“Turismo arluan, garapen  
iraunkorren arluan, indus-  
trian eta pertsona nagusixerri  
zuzendutako produktu eta zer-  
bitzuen arluan”.*

Informaziño gehixagorako  
Debegesaren webgunera jo  
leike edo, nahixago izanez ge-  
ro, 943 82 01 10 telefono zen-  
bakira deittu edo ekintzai-  
le@debegesa.com helbidera  
idatzi.

# LARANJAZ JANTZ ZAITEZ

**Euskaltel**  
**Euskadi** ies arropa

%20

irabazte

Gure denda  
arropa duzue  
bera ere irabazteko

Euskaltel  
943 82 01 10

Euskadi  
943 82 01 10

Euskaltel  
943 82 01 10

Errebal, 5 Elbar

943 53 07 20

TEEN-  
AUEA



Urte bi daramatza tiratzaile moduan, baina Euskadi eta Espainia mailan hainbat txapelketa lortu ditu Inaki Artetxek. 16 urteko eibartar honek maila handia erakutsi zuen Europako txapelketan eta orain Alemanian dihardu lehiatzen Espainiako txapelketan. Norica-Lauronaren babesarekin lortu du Artetxek.

-----

**IÑAKI ARTETXE, tiratzailea:**  
**“Garestia da plater tiroan jardutea”**

**- Nola hasi zinen tiratzaile moduan lehiatzen?**

Aita ehiztaria da eta arma baimena atera ostean berarekin hasi nintzen duela pare bat urte Arraten. Orduan, Irun, Legazpi, Oñati eta beste hainbat lekura joaten hasi nintzen tiroak botatzen.

**- Zertan lehiatzen duzu?**

Hiru probatan hartzen dut parte. Bata mini-fosoa da: hor hiru makina daude eta abiadura gutxiakoa da. Ondoren, foso unibertsala dago, bost makinarekin, abiadura handiagoa eta angulu gehiagorekin; hori da gehien gustatzen zaidana. Azkenik, foso olinpikoan ere hartzen dut parte: 15 makina, abiadura handia eta angulu txikia batzen dira proba horretan.

**- Nola entrenatzen duzu?**

Barixaku arratsaldetan, klase-  
tik irtetzean, Arratera joaten naiz  
entrenatzera. Batzuetan zapatu  
goizetan ere joaten naiz.

**- Nor duzu entrenatzaile?**

Aitarekin ibiltzen naiz, ez daukat  
entrenatzaile espezifikorik. Aitaren  
lagun batek irakatsi dit gehienbat.

**- Asko entrenatu beharra dago goian egoteko?**

Ona izan nahi izanez gero, beste edozein kiroletan bezala, lan asko egin behar duzu.

**- Pentsatzen duzu edozeinek jardun dezakeela tiroan?**

Kontua da material berezia behar duzula: betaurrekoak, babes bereziak, eskopeta... beraz, nahiko garestia dela esan daiteke. Ni-ri Norica-Lauronak babesten dit orain eta zortea daukat alde horretatik. Eurek emandako eskopeta daukat eta kartutxoak beste enpresa batek ematen dizkit.

**- Profesionala izatea posible ikusten duzu?**

Ez dut hori gertu ikusten, baina 5-6 urtetan lor dezakedala uste dut. Kirol honetaz bizitzea, bestetik, zaila da. Esango nuke Espainia osoan lagun bakarra bizi dela kirol hau egitetik.

**- Almeriako Espainiako Txapelketan zein helburu dituzu?**

Ez noa irabazteko asmoarekin, baina ahalik eta ondoen egitea nahi dut.

**- Zure adineko asko dabilta?**

Euskal Herrian beste lagun bat ibiliko da. Hemendik kanpo askoz ere gazte gehiago dago, baina hemen ez da horrela.

**BAMETSA**  
R  
Toribio Etxebarria, 4

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7





## Dena denen artean egiten den tokia

Tolosako Uzturreko do-  
rra eta San Inazio Sa-  
natorioaren garbiketa  
eta berritzea egitea nazioarteko  
beste gazte batzuekin batera;  
Granadako Cuevas del Cam-  
poko ondarea berreskuratzea;  
Japonia, Maroko, Hego Korea,  
Lituania, Italia, Islandia, Kana-  
da, India, Finlandia, Taiwan edo  
beste herrialderen batean arke-  
ologia, natura edo gizarteareki-  
ko ekintzekin zerikusia duten  
lanetan aritzea eskaintzen dute  
auzolandegiek. Udan herrialde  
hauetan, Espainian edo Euskal  
Herrian aritzeko aukera eskain-  
tzen du Gipuzkoako Gazte Zer-  
bitzuak, eta orain da izena  
emateko sasoia.

Maiatzaren 10ean eman zen  
atzerrian libre zeuden plazen

berri, beraz, zure eskaria egi-  
teko momentua da honelako  
esperientzia zirrargarriaz dis-  
frutatu nahi ezker. Horretara-  
ko, jaioteguna eta bizilekua  
adierazi beharko da, bakoitzaren  
gustoko plaza bilatu (gal-  
dera batzuri erantzun beharko  
da: non, noiz eta nolako lana  
egin nahi duen bakoitzak),  
gustokoen plaza hautatu, for-  
mularioa bete, eta plaza ba-  
koitzaren izenean gordeko da  
72 euroren truke. Internet da  
eskaria egiteko bidea [www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net) hel-  
bidean.

### Modalitate eta jatorriaren arabera


Modalitateei dagokienez, lau  
modalitate dira eskaintzen di-

**Leku askotako gazteak batzen dira auzolandegietan, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso gabe, aldi batez elkarrekin bizi eta gizarte osoarekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzeko asmotan. Udan horrelako esperientziak izateko aukera eskaintzen du Gazteaukerak.**

tuzten auzolandegiek. Lehenik,  
arkitektura-ondarea berresku-  
ratzea. Helburu nagusiak arte-  
aberastasuna gordetzeko inte-  
resa piztea gazteengan eta he-  
rriaren historiarekin zuzen-zu-  
zeneko harremanak bultzatzea;  
eta arkitektura gorde ahal izate-  
ko urratsak egiteko. Bigarrenik,  
arkeologia dago. Zentzu horretan,  
arkeologia-aztarnen azter-  
keta zehaztasun handiz eta  
metodologia egokiaz egin be-  
har dela hartu behar da kon-  
tuan. Hirugarrenik, natura azal-  
tzen da, izan ere, gure herria-  
ren aberastasunik handieneta-  
ko bat da naturaren ondarea.  
Eta azkenik, gizartearekiko  
ekintzak daude. Bertan, egune-  
roko lanean eta elkarrekin egin-  
dako bizitzan, aparteko garran-  
tzia emango zaie inguruko herri  
eta auzoetan integratzen la-  
gundu dezaketen ekintza eta  
jarduera guztiei.

Auzolandegiak, bestetik,  
parte-hartzaileen jatorriari be-

giratuta ere banatu daitezke.  
Batetik, estatu-mailako auzo-  
landegiak daude, eta bertan  
Espainia osotik etortitako gaz-  
teek hartzen dute parte. Beste-  
tik, nazioarteko auzolandegiak  
aurkitzen dira. Horietan, Eus-  
kadiko eta beste autonomia-er-  
kidego batzuetako gazteekin ba-  
tera, mundu osoko gazteak ibil-  
tzen dira.



**PREST**

**m**

**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**

**ARETO NAGUSIAN**  
etorriurretik izena emari

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE** 2. ikte  
MAIATZAK 20 - osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

**IRUN**  
MAIATZAK 20 - osteguna - 18:00

## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B  
t. 943 208 330


T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAIA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT Hortz Klinika**

Hortz-osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura



Hortz, konplexua eta  
komplikatu barietatekin  
Hundelako kontrola...

PREBENTIBOAK: Tel. 943 20 18 51

eibartarren irribarrea pizten



**Bista Eder**  
DENTISTAK - HORTZ KLINIKAK

Bista Eder, 19 - behea  
Tel. 943 70 00 82  
943 20 84 75



- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

RPS 04/02



**IRAZABAL**  
clínica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

# OSASUN

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia  
ume eta  
helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

RPS 336/05

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**

**ERREHABILITAZIOA**



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
eta **Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxa - 943 12 03 58

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 8. behean - Telf.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

**FISIOTERAPIA**  
ZENTRUA

ARRAGUETA, 20  
Tlf. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com


**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI  
901 kolegiatu zbkia.

San Agustin, 2-4 - M lokala  
Tel. 622 14 58 58

**FISIOTERAPIA**  
- fisioterapia  
- osteopatia  
- errehabilitazioa

**Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA**

Juan Gisasola, 14  
Telefonos: 943 12 70 78



# GIDA

## Kirol medikuntza

**KIROL MEDIKUNTZA**  
  
**Indartu**  
 ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTITAKO MUTUA ETA ASBURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazioa, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskatnet.net

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
 124 kolegiatu zenbakia



**HELBIDE BERRIA**  
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**

## Psikologoak

**AROR**  
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
 (Ume eta helduendako)

--- Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta ---

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. ez. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
 Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

## Okulistak

  
 Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

**OKULISTAK**  
 EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartea  
 Tfnoa: 943 20 19 82

BIDEBARRIETA, 48  
 EIBAR  
 943 203050

ERDIKO KALE 54  
 ARRASATE  
 943, 799746

**PODOLOGOA**  
 Erdiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO  
 PSIKOLOGIA  
 KABINETEA

 **Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
 TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66  
 a\_garitaonandia@terra.es

  
 Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
 Oftalmología Clínica

Plaza Barría, 2 - 2º  
 Tfnoa: 943 201 844  
 www.clinicarecalde.com

**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta  
 Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
 Telf. 943 206823 eta 686 859023

 **PODOLOGO**  
 T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

**Radiologia**

**MADINA RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
 TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857



Hemen zure tokia izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefonora

**Asier Serranoren****kolaborazioa****Saltzen saltzen (I)**

Bazen behin, bere bizitzaren lehen laurdena, arnas ezberdinez bizitza bizitzera eman zuen idazle bat. Bigarren laurdena, bere bizitzako obra idaztera erretiratu zen. Liburua bukatu zuenean, argitaletxe ezberdinetara igorri zuen bere lana. Argitaldari guztiek aho batez onartu zuten liburua. Orduan, idazleak editore denei berdina esan zien: "Ez dut zuekin aterako, zuek liburua saltzeagatik niri dirua emateko prest zineten... zortea daukazu debalde irakurrita". Gero, liburuaren kopia guztiak erre zituen. Bizitzaren hirugarren laurdena, beste liburu bat idazteko hartu zuen idazleak. Amaitzean, argitaldari guztiek aho batez erabaki zuten liburua argitarazina zela. Idazleak, barre egin eta pentsatu zuen: "Orain izan zitekeen momentua, jendeak liburua irakur zezan". Eta bigarren liburuaren kopia denak suntsitu zituenean, arnas bareaz, geratzen zitzaion bizitzaren azken laurdena bizitzera abiatu zen.

**musika****Pello Ramírez**  
*Eskuz lurrari*

Pello Ramírez musikari eta musikagileak orain dela bost urte kaleratu zuen lehen diskoa: Haize oihalak. Orain barkarko bigarren lana aurkeztuko digu: Eskuz lurrari. Diskoaren kontzeptua instrumentala da; akordeoia, txeloa eta pianoa izango ditu ardatz. Konposizio guztiak Pello Ramírezenak dira, baita diskoaren moldaketa, zuzendaritza eta ekoizpena ere.

**Seiren**  
*Marraren beste aldean*

Soinu helduagoa Seiren taldeak oraingoan eskaintzen duena, "Marraren beste aldean zu" diskoan, hamarkada berri honetako euskal Pop-Folkaren erreferentzia izateko estilo propioa lortuz. Maitasuna begi aurrean gure leihoan ikustetik, galtzera eta itxaropentsu berriro aurrera egitera eroango gaituzte euren letra eta musketan.

**Lander Garro**  
*Kontrarioa*

Raul Oliveirak xakean eta edaten pasatzen ditu arratsak Oskar adiskidearekin, amodio ezinbestekoetatik ihesian, idazle izateko ametsekin zorabiatuta. Oreretako Pontika auzo bazterrekoan bizi da amarekin, baina aurki lanen bat topatu ezean ostikoz botako du etxetik.

**Antton Kazabon**  
*Aurpegiko ubeldurak*

Erietxean dago Matilde, senarrak emandako azken jipoiak lagatako arrastoak sendatzeko asmoz; bere burua defendatzeko, baina, erabaki gogorrena hartu behar izan zuen, eta orain luze eta zabal hitz egingo dute gertaera hartaz, haren zergatiaz eta ondorioez, bere alaba Enarak, honen mutil-lagun Aingeruk, seme Lukaxek, eta abar.

**literatura**



Hillaren 22xan, datorren asteko zapatuan, "Tantanez Tantan Eibarren Euskaraz Blai" ekitaldixaren bigarren ediziñua egingo da gure herrixan. Oin dala urte bi, 2008ko maiatzaren 24an egin zan aurrekua, Kontseiluak hamar urte betetzen zebala aprobetxatuz eta horren inguruko ospakizunekin bat egitteko.

## Gantxilla Urkizutik Untzagaraiño

Oinguan be Urkizuko Oiturrixan beteko dau gantxillia J.A. Mogel Ikastolako ordezkari batek eta, ondoren, eskuz-esku Urkizuko parke bixak, Arraguetta, Ibarkurutze, Errebal, J. Etxeberria eta T. Etxebarria kaletik pasa eta gero, Untzagaraiño helduko da bertan irakurriko dan komunikauarekin ekitaldixari amaieria emoteko.

Urte bittik behiñ antolatzeko asmua daguan ekitaldixa presatzen dihardute euskeraren normalizaziñuaren inguruan biharrian dabiltzan eragille gehixenak; holan, dendarixak, kirol taldiak, kultura arlokuak, ikastetxiak, alderdi politikuak,

Udala berak... bat egin dabe "Tantanez Tantan"-ekin eta atzo bertan (astekari hau ordurako inprentan zeguanian) batze-kuak ziran, parte hartuko dabezen alkarte eta lagunak gantxillia nun hartuko daben zihazteko asmuarekin.

### Kuadrohun pañeluaz

Ibilbidia alkartien artian banatuko bada be, oin dala urte bi egin zan moduan jendiak auke- ra izango dau edozein tokixan daguala parte hartzeko eta, "uniformidade pixkat emoteko asmuarekin, kuadrohun pañeluaz juatia" eskertzen dabe antolatzailiak. 13.00ak inguruan hasi- ko da euskeriaren aldeko jardun




hori Urkizun eta amaieran, 13.30ak bueltan, Egunkaria auzixan sartuta egon diraneri animuak emongo jakuez. Euskeriaren aldeko olatuaren aldeko batzordekuak azpimarrau gura izan dabe "normalizaziñuaren alde egin biharreko ahalegiña, gure hizkuntza guztiaren biharrian dagualako. Euskaraz ikas- itta be, erabillerian ez da hain- beste igartzen eta horrek jarrera aktibuagua eskatzen dau".

Euskaraz bizitzeko eskubidia aldarrikatuko da egun horretan



Orduan be Eibarko entrenadoria zan Manixek irakurri eban oin dala urte biko komunikaua. / LEIRE ITURBE



Urkizutik Untzagaraiñoiko giza-katian bostehun lagunetik gora hartu eben parte 2008xan. / MAIALEN BELAUSTEGI

eta antoltzailiak oin dala urte biko markia gaintzeko asmua dake: "Orduan 500etik gora lagunek hartu zeben parte 'Euskaraz bai' lema Euskal Herriko txoko guztiatara zabaltzeko ahalegiñarekin bat egitteko prestau genduan ekitaldixan", dioskue talde eragillenekuak.

Herrixa ziharkatuko daben giza-kate horrekin, euskeriak beste behin eibartarron besarkada goxua jasoko dau.

ZEUK ARREBATU

DOAN

57c

35c

DOAN

Fitxerak hasi baliagarria eragiteko eta erabiltzeko modu onak. Bideratutako argazkiak erabiltzeko erabiltzeko modu onak.

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR


MULTIOPTICAS  
Lehenengoak zerbitzu optikoetan

## Kalamuako bi Espainiako judo txapelketara

**NEKANE MUGURUZA ETA AI-TOR VILLALBA TXAPELDUN AUTONOMIKOAK** izango dira domekan Madrilen han jokatu-ko diren infantil, kadete eta junior mailetak Espainiako VI. txapelketetan. Villalbak junior mailan lehiatuko du eta Muguruzak infantiletan. Bestalde, Kalamua klubeko beste hamabi lagun izango dira Gipuzkoako txapelketan.




## Hiru eibartar Zegama-Aizkorri



**IGOR AZURMENDI, JUANJO LARRAMENDI ETA IÑAKI LÓPEZ DE GEREÑU DIRA DOMEKA GOIZEAN IX.** Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartuko duten gure herriko ordezkariak. Munduko Koparako baliogarria den probak 1.650 eskari jaso ditu parte hartzeko, baina 510 korrikalari onartu ditu bakarrik. Irabazlea lau orduren bueltan ibiliko da guztira bost kilometro eta erdiko desnibela duen proba amaitzeko (296 metrotik 1.551era igoko dute korrikalariak).

## Cuevasek 1 zenbakia eramango du Donostiako maratoi erdian

**DONOSTIAKO MARATOI ERDIAREN ANTOLATZAILEEK DOMEKAN JOKATUKO DEN X. EDIZIO-RAKO** 1. saioaren irabazlea omendu nahi izan dute eta, hori dela-eta, Asier Cuevasek 1 zenbakiko dorsala eramango du proban. Eibartarra Espainiako maratoi txapeliduna izan zen 2008an Valentzian eta azpitxapeliduna iaz Sevillan.




## Alcoyano-Eibar igoera promoziorako lehenengo kanporaketan

**2. A MAILARA IGOTZEKO BIDEA INOIZ BAINO ZAILAGO BADA-GO ERE,** horretarako ahalegina egin beharko dute Javier Mandiolaren mutilek eta hiru kanporaketak gainditzen saiatu beharko dute. Lehenengo erronkan Alcoyano "moralaren erregea" izango dute aurkari, haren ospeari erreparatu gero amore ematen ez duen horietako taldea. Kanporaketa horretako bigarren partidua Ipuruan jokatu da eta, lehia hasteko, domekan, 17.00etatik aurrera, ETB SAT-ek eman- go du zuzenean Alcoyano jokatu den



lehenengo. Partidu horretarako, Manixek jokari guztiak ditu jokatzeko moduan (Cuevas eta Piette kenduta), txartelez garbi geratzeko aprobetxatu baitzuten liga-ko azken jardunaldiak.


Entrenatzaile aldaketa badi-rudi ondo etorri zaiola taldeari, emaitzei dagokinez behintzat; eta horrela, Barakaldon irabazi eta gero, Athletic B baino gehia-



go izan zen Eibar azken domekan (3-1). Igoerako promozioa jokatu duten besteak Ponferradina (multzoko liderra), Palentzia eta Pontevedra dira (Alavés kanpoan geratu da).


## Ane Ziaran 3.a triatloiko Espainiako Unibertsitarioen txapelketan

**AURREKO BARIXAKUAN ALACANTEKO SAN JUAN HONDARTZAN JOKATUTAKO** Espainiako Unibertsitarioen txapelketan, Eibar Triatloi Taldeko ordezkaria junior mailako hirugarrena izan zen. Arrate Mintegi, Milos Mallo eta Ibone Sánchezekin osatutako EHU-UPV taldeak 4. postuan amaitu zuen azken sailkapenean. Triatloia 22. postuan amaitu zuen Ziaranek, baina bere mailako podiuma eskuratu zuen.



## Eibar B-k larri eutsi dio mailari

**AITOR ITURBEREN TALDEA LARRI SAMAR DABIL AZKEN DENBORALDIETAN,** ligaren erdia jaitsiera postuetan kokatuta. Eta aurten, iazkoari jarraituz, azken jardunaldian egin dio ihes jaitsierari, Baskoniari Unben 4-3 irabazita, 1-3 galtzen joan eta gero. Elgoibarrek, bestalde, igoerako promozioa jokatu du.



## CARLA IGLESIAS GARCÍA

*2010eko maiatzaren 2an hil zen, urte birekin*

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



## Deporreko squash-larien egun handia

**ZAPATUAN TALDEAREN TORNEO SOZIALAREN II. EDIZIOA EGIN ZUTEN** eta han izan ziren denboraldi guztian euren arteko Hileroko Ligan parte hartzen dutenak. Hogei jokalaria izan ziren lehian (Klub Deportiboko 16 eta Zarautz KEko beste lau) torneo azkarrean eta ez zen ezustekorik izan eta Alberto Ferreiro Euskadiko txapelduna nagusitu zen, finalean Sergio Salgadori irabazita. Egun biribiltzeko, txoko batean afaldu zuten denek.

## Eibar Rugby Taldeak maila galdu du

**EZIN IZAN ZEN, MAILA ONA EMAN ETA AZKENERAINO BORROKATU ARREN.** Zale-tuen laguntasuna ere izan zuten Unben domeka eguerdian

jokatutako partiduan, baina 11-3ko garaipena ez zen nahikoa izan Madriletik zekartzaten emaitzari (23-10) buelta emateko. Zortea aurka izan dute Hierros Anetxeoak denboraldi osoan eta esperientzia ezak ere zerikusia izan du denboraldi osoan. Azkenean, Arquitectura handiak hartuko du eibartarren tokia maila horretan eta eibartarrek hurrengo denboraldirako aldaketa garrantzitsuak aurreikusten dituzte taldean.



## Urbat-eko waterpolo taldeak Davide Cerchi aurkeztu zuen

**URBAT-URKOTRONIK WATERPOLO TALDEKO ARDURADUNEK SERIO HARTU DUTE HURRENGO DENBORALDIA** eta, horretarako, kanpaina bereziari ekin diote. Barixakuan, Davide Cerchi entrena-tzaile berriarekin batera, proiektu berria aurkeztu zuten; eta "ateak zabalik" jardunaldian 35 neska-mutil joan zitzaizkien, kirola ezagutzeko gogoz. Jardunaldi horiekin jarraitzeko asmoa dute Sanjuanak arte eta Orbea kiroldegiko entrenamenduak martitzen, eguen eta barixakuetan izango dira, 17.00etatik 19.15ak arte. Informazio gehiagorako, waterpo-



Davide Cerchi entrenatzaile italiarra aurreko barixakuan egindako aurkezpenean. / MAIALEN BELAUSTEGI

lo@urbat.es eta urbatwp@gmail.com helbideak dituzte (baita 688 610 627).

Cerchiren presentzia ondo igarri da senior taldean eta, EHko Kopako lehenengo jardunaldian, Urbatek 5na berdindu zuen Donostian Tximistarrarekin.

## Arrateko kadeteen fasea Santanderren

**ARRATEKO KADETE MAILAKO TALDEAK ESPAINIAKO TXAPELKETAKO SEKTOREA JOKATUKO DU SANTANDERREN** asteburuan. Berarekin izango dira Salesianos Dosa (Kantabriako txapelduna), Base Barcelona (Kataluniako 4.a) eta Maristas Ademar (Gaztela-Leongo txapelduna). Gaur, 18.30etan, Maristasen aurka jokatuko dute eibartarrek; bihar, 17.00etan, Salesianoson kontra; eta etzi, 10.00etan, Base Barcelonarekin.

**Bermeo ibilaldia**  
marigoran kikinbera  
Bermeo 2010

**maiatza**  
ren  
**30**  
ean

**autobus**  
zerbitzua

**Irteera**  
09.00etan  
Ego-Gainetik

**Itzulera**  
19.00etan

**8 euro**

J.A. Mogel  
Ikastolako  
Guraso Elkarteak

...eta kitto!  
Euskara Elkarteak

**txartelak ...eta kitto!-n**

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizta 20 - beheko eskualdea

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

**Tanatorioa eta Errozketa laber**  
Egokien (Signo poligonoz)  
Partikular, mitua eta auzun-erakunde zerbitzua  
Korak - Eskelak - Urteurrenko eskelak  
Euskal Herri osoko ospitaleen hartzai zerbitzua  
Nazio eta Nazioarteko traxelak

**Mugica Errozketa**  
Errozketa laber

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

Estudioko erretratuaren tailerra eskainiko du bihar Mamen Mari donostiarrak Portalean (10.00-14.00etara eta 16.30-19.30). Errekonozimendu handiko argazkilaria da Mari eta argazkilaritzako maisu handiekin eskaini ditu ikastaroak.



**MAMEN MARI, argazkilaria:**

## “Erretratua ezin da ‘mutua’ izan”

**- Zer igortzen du erretratu batek beste argazki mota batek (paisaiak, kasu) igortzen ez duena?**

Niri, behintzat, pertsonekin harremana izatea ekartzen dit, eta aurpegiaren sentimenduak, edertasuna eta niri pertsona horrek igortzen didana.

**- Erretratua egiterako orduan elementu bi daude, batez ere: argazkilaria eta modeloa. Zenbateko garrantzia dauka elementu horietako bakoitzak argazkiaren emaitzan?**

Argazkilaria eta modeloa artean konplizitatea eta konfidantza egon behar da. Zentzu horretan, alde biak ondo sentitu behar dira, izan ere, hori horrela ez bada, emaitza ez da ona izango.

**- Zer izan behar du erretratu batek ona izateko?**

Batez ere transmititu egin behar du. Ez da argazki ‘mutua’ izan behar. Behin hori lortuta, zerbait igorri, eta argiztatze, enkuadre eta konposaketara ona izan behar du erretratuak.

**- Material ona (kamara potentea, estudio prestatua...) izatea garrantzizkoa da erretratu ona egiterako orduan?**

Ekipo ona izateak laguntzen du erretratu ona egiteko orduan, baina ez da ezinbestekoa. Argazkia plantifikatu egin behar da aurretik eta, ondo-

ren, nahi duzuna egiteko gai izan behar zara. Hau da niretzat berebizikoa. Ideiaren bat ez badaukazu, berdin dio kamara edo dituzun baliabideak zeintzuk diren. Argazki bat teknikorik perfektua izan daiteke, merkatuko kamera onenarekin eginda, eta ezer ez igortzea. Nahiago ditut kalitate gutxi, baina eragin bisual handia duten argazkiak. Berriz ere begirarazi egiten didatenak edo zuk nahi duzun istorioa imajinatzea eragiten didatenak.

**- Zergatik egiten dituzu erretratuak eta ez beste argazki motaren bat?**

Gehien asetzen nauen argazki mota da eta gehien gustatzen zaidana. Paisaia hor dago eta nahi duzunean atera diezaiokezu argazkia, edo hor daude arandegiak ere, zerbait inerteak direnak, baina niretzat pertsonak erronka baten antzekoak dira.

**- Studioko erretratuaren gaineko ikastaroa eskainiko duzu Eibarren, baina nolakoa izango da saioa?**

Nahi duzun argazki hori bideratzeko modeloa nola zuzendu behar duzun, eta argia nola planifikatu eta argiztatze eskemak nolakoa izan behar diren azaltzeko teoria azalduko dut lehen zatian. Ondoren, modeloarekin egingo dugu lan eta, amaitzeko, argazkiak ‘Photoshop’-en erretokatuko ditugu.



Aizkolarari txapelketak zortzigarren edizioa biziko du aurten.

## Isidro Deunaren jaia bihar Arraten

**BETIKO MODUAN, MAIA-TZAREN 15-EAN ISIDRO DEUNAREN JAIA OSPATUKO DUTE BASERRITARREK ARRATEN.** 11.00etan, bertso-lariak eta trikitilariak lagundutako meza nagusiarekin hasiko dute eguna eta, ondoren, prozesioa egingo da, Usartza Txistulari Bandakoekin batera eta, jarraian, Kezka dantza taldekoek aureskua egingo dute. 12.30etan San Isidroetako VIII. Aizkolarari Txapelketa hasi bitartean, Getariko txakolina, bailarako gazta, ogia eta aire librean

hazitako basatxerri ezaugarria duten txerriekin dastaketa egiteko aukera izango da. Aizkolarien saioarekin tartekatuta, harrijasotzaileen saioa ere hartuko du zelaiak. 14.00etatik aurrera Kantabria jatetxean egingo den bazkarian bailarako herri bakoitzeko aitona-amonak nagusienei omenaldia egingo zaie eta, egunerako egitaraua agurtu aurretik, idi-probak jokatu dira, 17.30etan. Nahi duenarentzat Arratera igotzeko autobusa Ego Gaineko autobus geltokitik irtengo da, 10.15etan.



## Usartza eta Cielito kontzertuan

**DOMEKAN, USARTZA TXISTULARI BANDAREN 75. URTEURRENA DELA ETA, KONZERTU BEREZIA ESKAINIKO DUTE txistulariek, Cielito Musika Bandarekin batera. Coliseoan izango da kontzertua, 12.30etan, honako egitarauari jarraituta: “Alkate soina” (J.M. Altuna), “Contrapas nº 1” (José María Gurrutxaga), “Eibarko bikotea, fandango” (Agustín Zuloaga/ J.M. Laskurain), “Eibarko bikotea, Arin arin” (Agustín Zuloaga / J.M. Laskurain), “Celestón” (Mariano San Miguel), “Antzineko Abestiak” (Alberto Garaizabal Makazaga), “Gernika” (Pablo Sorozabal), “Idiarena” (Eduardo Gorosarri), “Menderik mendi, biribilketa” (José Antonio Erauski) eta “Biribilketa” (Manuel Gainza).**



## Lan estresaren inguruko aurkezpena

**EGUENEAN, 19.30-ETAN, JORGE HERNÁNDEZ LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAK LANEKO ESTRESA KUDEATZEKO** gidaren aurkezpena egingo du Portalean. Salamancan jaio eta Eibarren bizi den teknikariak idatzitako liburuak, egileak berak laneko estresa tratatzeko sortutako hiru protokoloak aurkezten ditu, edozeinek erraz ulertzeko moduan. Thomson Reuters Aranzadik argitara emandako liburua gazteleraz idatzita dago eta, nahi izanez gero, on-line erosteko aukera badago, honako helbidean (<http://www.aranzadi.es/index.php/catalogo/tipo/libros/guia-de-gestion-del-estrés-laboral>).



## Eibarko Koro Gazterako probak

**ASTELEHENEAN, MAIATZAREN 17-AN, EIBARKO KORO GAZTEAN SARTU NAHI DUTEN GAZTEENTZAKO PROBAK EGINGO DITUZTE** Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan (Portalean). 15 eta 25 urte bitarteko neska-mutiek har dezakete parte casting-ean eta Elena Martín koroko zuzendariak jendea probetan parte har dezan animatu nahi du: *“Eibarko Koro Gazteak Oh Happy Day saioan lortutako garaipenak pozez bete gaitu, baina gehiago egin nahi dugu. Abesbatza gazte eta dinamikoa egin nahi dugu eta jakin badakigu Eibarren talento handiko jendea badagoela. Horregatik, gazteak probetara lotsa barik etortzea nahi dugu”*. Probetan, gazteek kantatzeko duten gogoari ez ezik, haien musikaltasunari ere begiratu diote. Casting-era joan aurretik, 943702725 telefono zenbakian bertara joateko asmoa baieztatu behar da.



## laburrak

### Lekeitiara irteera

Maiatzaren 20an Santa Rita eguna dela eta, urteroko moduan Lekeitiara irteera antolatu dute, Agustinen komentuko mojei bisita egitera joateko. Interesa dutenek honako telefono zenbakietara deitu dezakete: 943203005 (M<sup>a</sup> Paz) edo 943202836 (Eduerne).

### Amañako danborrada

Atzo hasi ziren Amañako danborradarako entseguak. Aurrekoetan bezala, Amañako herri ikastetxean izango dira entseguak, egunetan (19.00etan umeena, 20.00etan helduena). Gastadore konpainia sortu nahi dutenez, deialdi berezia egiten zaie horretan interesa dutenei.

EUSKAL HERRIKO LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA  
GEHITU.NET

Infasis

informazioa  
eta laguntza

943 45 17 22  
infasis@gehitu.net

2010  
TRANSFORMAZIORAKO URTEA

## Ipurterre sariak banatuta

**EGUAZTENEAN BANATU ZITUZTEN ...ETA KITTO EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATZEN DUEN IPURTERRE IPUIN LEHIAKETAKO SARIAK**, Hezkuntza


Esparruan goizean egindako ekitaldian. Aurtengo ipuin irabazleen egileek sari bana jaso zuten eta, jarraian, Sun magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten.



## Euskal Jairako sarrerak salgai

**EUSKAL JAIRAKO EKITALDIAK MAIATZAREN 23-AN HASIKO DIRA, BAINA JAIA ANTOLATZEAZ ARDURATZEN DIREN KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIEK** bazkari zein afarirako txartelak aldez aurretik erostea komeni dela gogorarazi nahi diote jendeari. Kantu-afaria hilaren 29an izango da, 22.00etan eta herri-bazkaria, berriz, hurrengo egunean, maiatzaren 30ean, 14.30etan. Txartelak Deportiboan bertan eta Kulturalean eros daitezke, maiatzaren 23ra arte. Ume, ikasle eta langabetuek 14 euro ordaindu beharko dute eta gai-nontzekoek 20 euro. Hilaren 29ko kantu afariaren aurretik, herri-bertso-parranda abiatuko da karpantik, 18.30ak aldera.

Hilaren 23an, bestetik, Aurrez Aurre ikuskizuna eskainiko du Maritzuli Dantza konpainiak



Coliseoan 19.00etatik aurrera (8 euro). Maiatzaren 27an, ordea, Kalamuako Parlamentuko lehiaketa egingo da eta izenematea Deporrean egin beharko da. Bikote irabazleak kantu afarirako lau laguntzeko txartelak lortuko dituzte eta finalera iritsitako lau bikoteek Kalamuako Parlamentuko joko bana jasoko dute.



### Txikitto ale berezia

Bestalde, baina Ipurterre-ko ekitaldiaren harira, ipuin irabazleak bil-tzen dituen Txikitto! hilabetekari-ko ale berezia banatuko da Lehen Hezkuntzako eta DBH-ko ikastetxeetan datorren astean. Urtarrilaz geroztik on-line dago bakarrik irakurgai Txikitto! (aldizkaria egiteko dirulaguntzen jaisiera dela-eta), baina oraingoan ale berezia kaleratuko da Ipurterreko ipuinak paperean irakurri ahal izateko.

## Jai giroa nagusitu zen Santa Kurutzen

**GIRO POLITA BIZI ZUTEN SANTA KURUTZEN AURREKO ASTEBURUAN. JAI BATZORDEKOEK GOGOTIK EGIN ZUTEN BEHARRA**, jaietan parte hartzera animatzen zirenek primeran pasatzeko aukera izan zezaten. Besteak beste, auzoko gazteek herri jolasak prestatu zituzten eta talde bien artean lehia gogorra izan zen. Azkenean talde berdearentzat izan zen garaipena, baina, hala ere, denek jaso zuten domina bana.



Jon Mikel Mujika, Iratxe Ibarra eta Mikel Arrillaga. / MAIALEN BELAUSTEGI

## Berdinketa bertso desafioan

**ETXEBERRIA ETA EIBARKO BERTSOLARIEN ARTEAN DESAFIOA BERDINDUTA AMAITU ZEN AURREKO BARIXAKUAN**, Bide Alde elkarte gastronomikoan afalostean jokaturako norgehiagokan. Gau osoan giro ederra izan zen nagusi bertsolarien zein bertsozaleen artean eta, afalostean talde garailea zein zen erabakitze-ko gauza izan ez zirenez, irabazlea ordu txikitian, Punto y Aparte diskotekan aukeratzea proposatu zuen protagonistetako batek. Hori bai desafioa!



## AMAIA GONZALEZ GANBOA


2010eko maiatzaren 5ean hil zen

**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, LIDE, gure printzesa, eskindu deskuzun lehelengo urte honengatik. Batez be, Ane eta Paulen partez.



Zorionak, AMAIA Bordas, atzo urtebete egin zendualako. Aitta, ama, Gorka neba eta Ane lehengusifiaren partez.




Zorionak, MAIALEN, atzo urtebete egin zenduan-eta. Aitatxo, amatxo eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KATTALIN Arrasate Lasa, gure printzesaren 3. urteurrenien. Patxo haundi bat aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, JOSE LUIS Cano eta MARIBEL Garro, 11n 50. urteurrena bete dozelako. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JOSE MARI eta ENCARNI, hillaren 12xan urrezko eztaiak bete dozelako. Famelixaren partez.



Zorionak, AMAIA, zure urtebetetzian. Zure umien partez.

## zinea Coliseoan

**14an, 20.30etan; 15ean, 19.45 eta 22.30etan; 16an, 20.00etan; 17an, 20.30etan.**

### "El plan B"

Zuzendaria: Alan Poul  
Aktoreak: Jennifer López, Danneel Harris, Noureen DeWulf, Anthony Anderson...



Urteetan hainbat mutlekin irten eta gero, Zoek erabaki du bere azukre koxkorrari gehiago ez itzarotea eta, ama izateko gogoak bultzatuta, plan bat prestatuko du beste inor barik lortzeko. Sendagilearengana joan eta Stan kandidato ederra aurkituko du.

### "Nadie sabe nada..."

Zuzendaria: B. Ghobadi  
Aktoreak: Hamed Behdad, Negar Shaghghi, Ashkan Koshanejad, Hichkas...



Musikarako talentua duten neska-mutil bikotea kartzelatik irten eta indie taldea osatzeko asmoa dute. Baina mendebaldeko ikutuko musika debekatuta dago Teheranen eta Europara joateko ahalegina egingo dute, ezkutatu barik jotzeko.

### "Robin Hood"

Zuzendaria: Ridley Scott  
Aktoreak: Russell Crowe, Cate Blanchett, Max von Sydow, William Hurt...



Robin Hood Ricardo Lehoi Bihotz erregearen zerbitzura dagoen arkulari iaioa da. Erregea hiltzean, demaseko zergak ezartzen dituen jauntxoari egingo dio aurre eta lady Marion-ekin maiteminduko. Banda bat osatu eta oihanean ezkutatu dira.

## JAIOTAKOAK

- Iزارo Azpiri Delgado. 2010-V-3.
- Unai Zabala Baglietto. 2010-V-4.
- June Pérez Cid. 2010-V-5.
- Leire Vieites Garitagoitia. 2010-V-8.

## HILDAKOAK

- Amaia González Ganboa. 51 urte. 2010-V-5.
- Begoña Mingo Erkoreka. 86 urte. 2010-V-6.
- Pedro Azpiri Gallastegi. 79 urte. 2010-V-8.
- Francisco López Estévez. 85 urte. 2010-V-9.
- Javier San Martin Agirreazaldegia. 70 urte. 2010-V-9.
- Angel Basauri Barrena. 72 urte. 2010-V-9.
- Estefania Solozabal Etxeberria. 83 urte. 2010-V-10.
- Jose Antonio Txurruka Sarasketa. 79 urte. 2010-V-11.

## horoskopoa

**ARIES**

Hainbat kontu argi laga beharko dizkiozu lagun horri; bestela, inoiz ez dizu errespeturik izango. Martitzena egun aproposa da horretarako.

**TAURUS**

Gauzak beti biharko uzten dituzu eta ez dituzu sekula amaitzen. Denak pilatuko zaizkizu eta nolabaiteko konponbidea eman beharko diezu.

**GEMINI**

Gauza bat egitea ahaztuko zaizu eta zure nagusia nahiko haserretuko da. Hala ere, ez kezkatu, begi onez begiratzen dizu-eta.

**CANCER**

Urpean egongo zara, arnas faltarekin eta larritasun handiarekin. Txirrina! Esnatzeko ordua da. Bihotz-taupadak ezin azkarrago joango zaizkizu.

**LEO**

Berak esandakoan sinisten baduzu, ez duzu zertan zalantzarik eduki. Beragan duzun konfidantza erakusteko momentu egokiena da.

**VIRGO**

Osasun aldetik nahiko kaltetuta ibiliko zara datozen egunotan, baina zure ingurukoek ederki zainduko zaituzte. Ez eskatu mimo gehiegi.

**LIBRA**

Astelehenean ohetik jaiki eta berriz barruan sartzea nahi izango duzu. Asteburu gogorra daukazu aurretik. Oso ondo pasatuko duzu!

**SCORPIUS**

Martitzenean aspaldian zure bizitzan garrantzitsua izandako pertsona bat ikusiko duzu berriro ere. Momentu politak gogoratuko dituzue biok.

**SAGITTARIUS**

Asteari gogotsu ekingo diozu, baina gauzak iluntzen joango dira poliki-poliki. Ea nola egiten diozun aurre egoera honi.

**CAPRICORNIUS**

Gau ederra izango da biharkoa, zuri hainbeste gustatzen zaizkizun horietakoa. Aspaldi itxaroten zenuen une berezi hori bizi ahal izango duzu.

**AQUARIUS**

Zu ez zara ausartuko, beraz, eskatu egiezu faborea lagunengatik. Hori bai, hurrengorako hobeto prestatu eta gutxienez saiatu zaitetz.

**PISCIS**

Ezusteko gozoa izango duzu datorren astean. Behingoz gauza zoragarria gertatuko zaizu bapatean, pozez negar egitekoa.

**Barixakua 14****INTERNET EGUNA**

**15.00.-** Internet Eguna. Astelena frontoian.

**SDIA DAS LETRAS GALEGAS**

**19.00.-** Galiziako Jai Batzordearen tabernaren irekiera. Herri-kirolak: Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Peio Etxeberria eta Hodei Ezpeleta aizkolariek eta Iparraldeko jokoak.

**21.00.-** Principal orkestrarekin (atsedenaldietan, Galiziako Etxearen "Zarangallada" taldeak joko du). Urkizuko parkean.

**HAITI-REN ALDEKO JAIALDIA**

**20.30.-** Eibarko Balleta, Musika Eskolako mariatxia, Goruntz Abesbatza, Eibarko Koro Gaztea, Musika Eskolako gitarra eta biolin taldea eta Eibarko Dantza Garaikidea. Sarrera: 12 euro. Coliseoan.

**ABONTZAKO JAIK**

**22.00.-** Tute txapelketa.

**Zapatua 15****ARGAZKILARITZA MAIATZEAN**

**10.00.-** Tailerra: "Retrato en estudio" (Mamen Mari). Portalean.

**INTERNET EGUNA**

**10.00 eta 16.30.-** Internet Eguna. Astelena frontoian.

**SAN ISIDRO**

**11.00.-** Meza, bertolari eta trikitilarien. Prozesioa, Usartza Txistulari Bandak lagunduta eta aurrakua Kezka dantza taldearen eskutik. Getariko txakolina, bailarako gazta, ogia eta txerriekin dastaketa.

**12.30.-** San Isidroetako VIII. Aizkolaria Txapelketa. Bikoteak: Nazabal eta Flores, Zelai eta Arrospeide, Bihurri eta Larretxea. Harrijasotzaileen saioa: Ostolaza, Eizmendi eta Telleria

**14.00.-** Bazkaria, Kantabria jatetxean. Omenaldia.

**17.30.-** Idi-demak. Eibarko Agarre-Azpi eta Altxubarren eta Debako Erlete..

**DIA DAS LETRAS GALEGAS**

**11.30.-** Umeendako "chave" jaurtiketa.

**12.30.-** Igel-toka.

**16.00.-** Helduendako "chave" jaurtiketa.

**18.00.-** Doce Lembranzas Barakaldoko gaita-taldeari harrera.

**18.30.-** Galiziako musika eta dantzak.

**22.30.-** Berbena, Passarela orkestrarekin. Urkizuko parkean.

**AUTOBUSA**

**16.15.-** "Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea" Iruñeko manifestaziora joateko autobusaren irteera. Ego Gainetik.

**ABONTZAKO JAIK**

**22.00.-** Mus txapelketa.

**Domeka 16****INTERNET EGUNA**

**10.00 eta 16.30.-** Internet Eguna. Astelena frontoian.

**DIA DAS LETRAS GALEGAS**

**11.45.-** Eibarko Trikitilariak harrera, Untzagan, eta kalejira Urkizuraino.

**12.30.-** Kezka eta Azahar (sevillanak) dantza taldeei harrera, Urkizuraino kalejira eta dantza erakustaldia.

**13.45.-** Castelaoren monumentoari lore eskaintza.

**15.00.-** Bazkaria, Arrate hotelean.

**18.30.-** Dantzaldia, Pasito Show orkestrarekin.

**22.00.-** Jaien amaiera. Urkizun.

**KONTZERTUA**

**12.30.-** Usartza Txistulari Bandaren eta Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

**Astelehena 17****INTERNET EGUNA**

**09.30 eta 15.00.-** Internet Eguna. Astelena frontoian.

**KORO GAZTERAKO PROBAK**

**21.00.-** Eibarko Koro Gaztean sartzeko casting-a. Musika Eskolan (Portalean)

**Martitzena 18****IKASTEN**

**10.00.-** "¿Por dónde camina la literatura contemporánea? Un viaje a través del relato breve", José Domingoren eskutik. EPAN (Isasi, 39).

**ESKOLARTEKO ANTZERKIA**

**15.00.-** "Baba zango-horiak" (Téâtre Des Chimères, Pok Produksioak). Hezkuntza Esparruan.

**HITZALDIA**

**19.30.-** "La cooperación al desarrollo desde lo local: erakunde txikien zeregina" (Egoaizia). Portalean.

**MUSEOAREN EGUNA**

**19.00.-** Nazioarteko Museoaren Eguna. Ipuin lehiaketako irabazleei sariak banatzeko ekitaldia.

**Eguaztena 19****ESKOLARTEKO ANTZERKIA**

**20.30.-** "Las Alba" (Bizkaiko Antzerki Ikastegia. Coliseo).


**Eguena 20****EKINTZAILEAREN EGUNA**

**18.00.-** Ekintzailearen Egunaren inguruko ekitaldi berezia. Debegegan (Azitaingo industrialdean).

**HITZALDIA**

**19.00.-** Adingabeak artatzeko ereduak buruzko hitzaldi irekia, Aralarrek antolatua.





**erakusketak**

- Maiatzaren 30era arte  
**VIRGINIA ARAKISTAIN** en argazki erakusketa. Portalean.
- CONFEDERACION ESPAÑOLA DE FOTOGRAFIA** ren "Fondos Fotográficos" argazki erakusketa. Portalean.
- JUAN MIGUEL ALBA MOLINA** ren argazki erakusketa. Topalekuan.
- Maiatzaren 31ra arte  
**29 ARGIZAIOLA LEHIAKETA** argazki erakusketa. Klub Deportiboan.
- KLUB DEPORTIBO** ko Argazki Taldearen lanak. El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako Jubilatuk.
- Maiatzaren 13tik uztailaren 23ra  
**"ARTE Y ARQUITECTURA EN EIBAR"** maketa erakusketa. Armagintzaren Museoa.

**ikastaroak**

- **Argazkilaritza Maiatzean tailerrak.** "Un estudio fotográfico en la calle". Noiz: Maiatzak 22, 10.00etatik 14.00etara. Untzagan. Izen-ematea: argazkilaritza@gmail.com (doan).
- **UEUko Udako Ikastaroak.** Matrikula: **Ekainaren 20**ra arte. Informazioa: www.ueu.org, 943821426 telefonoan.
- **Oporrak Afariketean.** Norentzat: LH-ko 1.mailatik 6. mailara bitartekoentzat. Noiz: Txanda bi (ekainaren 28tik uztailaren 9ra, uztailaren 5etik 16ra).
- **Udan Jolasetan.** Norentzat: 5 urteko haurrentzat (2004an jaiotakoak). Noiz: Ekainaren 28tik uztailaren 9ra, 10.00etatik 12.00etara.

**farmaziak**

- 14, barixakua**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 15, zapatua**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 16, domeka**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 17, astelehena**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 18, martitzena**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 19, eguaztena**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 20, eguena**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
- 21, barixakua**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Izen-ematea: **Maiatzaren 14**ra arte, 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara, Portalean.

**telefono jakingarriak**

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.50, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00. **EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.50 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30. **EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdi. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdi eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

7	4			2			
9		2	8			1	
				3			7
	5					9	
8		4	5		7	3	6
		7					5
1				6			
		6			9	7	4
				1			6
						6	2

**DENBORAPASAK**

1	5	2	8	6	9	4	7	3
7	9	0	2	1	4	8	5	6
4	8	6	3	7	5	1	2	9
2	8	4	1	8	3	5	6	7
6	1	8	7	5	2	3	9	4
5	7	3	9	4	6	2	1	8
9	2	5	6	3	8	7	4	1
3	6	7	4	2	1	8	0	5
8	4	1	5	9	7	6	3	2

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Logela biko. Tel. 943-056003 edo 680-749715.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Karlos Elgezuan (Amaña). 60 m<sup>2</sup>. Logela bikoitza bi, egongela, sukalde handia eta komuna. 24.600.000 pezeta, negoziagarriak. Tel. 943-201657 edo 696-348630.
- Pisua salgai Eibarko erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena kanpora. Sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 629-533695.
- Duplexa salgai Elgetan. 85 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela behoko suarekin, sukaldea eta bainugela bi. Berogailua. Guztiz jantzia. Aukera ona. Prezioa adosteko. Tel. 685-751891. Idoia.
- Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Deitu 17.00etatik aurrera. Tel. 660-268797.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-714616.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Barrera kalean, Lidl-en azpian. Tel. 609-907688.
- Garaje plaza alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 600-018668.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 675-471426.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia) eta garbiketa lanetarako (tabernak, tailerrak, bulegoak). Tel. 660-593523.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan. Esperientzia. Tel. 688-687563.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Jaiegun eta gaeetan ere bai. Esperientzia. Tel. 688-637510. Eli.
- Mutila eskaintzen da tabernan edo baserrian lan egiteko. Tel. 686-077316.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 690-359554.
- Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
- Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 650-029176.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Asteburuetan eta gaeuz. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak gaeuz eta umeak gunez zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-927812.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan Eibar eta inguruetarako. Tel. 628-526642.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita abuztuan ere. Tel. 680-834754.
- Emakumea eskaintzen da 15.30etatik 18.30etara umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 647-044031. Marian.
- Mutila eskaintzen da tabernan zerbitzatzeko herriko jaietan edo asteburuetan. Urte askotako esperientzia. Tel. 617-894103. Edorta. edortamendi@yahoo.es
- Emakumea eskaintzen da sukaldari edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 696-460404.
- Neska euskalduna eskaintzen da Sanjuanetatik aurrera udan umeak zaintzeko. Tel. 600-381767.
- Neska eskaintzen da edozein ordutan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 686-234612.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 677-155611. Anabel.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako (pegorak, tabernak). Tel. 648-603029.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo peoi jarduteko. Tel. 697-481489.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, garbiketarako egiteko edo sukaldari-laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 626-946905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-690415.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 663-682150.
- Neska eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 648-951982. Marizza.
- Neska eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 638-196512. Maria Teresa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, baita gaeuz ere, eta tabernako sukaldari moduan lan egiteko. Tel. 680-223378 edo 943-530132.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 649-044223.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-311395.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel. 626-246543.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak arratsalde zainzeko. Tel. 659-222426.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo tabernan lan egiteko. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 691-808493.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 618-714616.
- Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 680-484679.
- Mutila eskaintzen da sukaldari edo kamarero moduan. Tel. 686-077316.
- Erizain laguntzaile eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 662-283671.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna edo orduka. Tel. 662-247584.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo kamarera moduan. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-516240.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-582150.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan. Esperientzia. Tel. 688-687563.

### 4.2. Langile bila

- Neska behar da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 607-293026. Asier.
- Neska behar da uztailean ume bi zaintzeko. Deitu 19.00etatik 21.00era. Tel. 943-120184.
- Sukalde munduan jardundako mutil dinamiko behar da jatetxe bateko partaide izateko, proiektu berritagarriekin. Tel. 943-207019.
- Komertziala behar da Euskaltelen. Tel. 617-724796.
- Ile-apaintzailea behar da, 1. maila ko ofiziala. Tel. 943-254512.
- Emakumea behar da moda denda baterako. Tel. 622-093424.
- Asteburuetarako sukaldari-laguntzailea eta aste osorako terrazan zerbitzuko kamareroa (ezinbestekoa euskeraz jakitea) behar dira Klub Deportiboan. Tel. 943-207044.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Haurrak mendira eramateko motxila (Denter Kid Konfort II) salgai. Berria. Prezio onean. Tel. 600-855357.
- Garbigailua (Otsein Hooven) salgai. Goitik kargatzekoa. Ia berria. Tel. 943-121051 edo 636-096283.
- Kotxe-kapota salgai, silla eta maxi-coxiarekin (Bebe Confort urdin marinoa). Silla-baston eta autoarendako-sillarekin. Tel. 617-256466.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Anorak moduko urte biko ume baten txaleko marroia galdu da Untzagako bankuetan. Balio sentimental. Tel. 635-711528.

zure twist graduatutako eguzkitako betaurrekoekin

# 59

€-tik aurrera

# babestu eguzkitik

Eta oraindik ukipen lenterik ez baduzu erabiltzen, probatu doan gure Bionature One Day

Errebal, 14 20600 Eibar  
GIPUZKOA 943 202 137  
plazaola@naturaloptics.com

  
**natural optics**  
zu zara, naturala zara

[naturaloptics.com](http://naturaloptics.com)

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak



DÍA DE LA PERSONA  
EMPREENDEDORA

MAIATZAN  
**20**  
DE MAYO

DEBEGESAREN  
EGOITZAN

**Debegesaren egoitzan (EIBAR)**  
Azitaingo Industria Poligonoa, 3 - bis

- 18:00-18:15:** Parte-hartzaileei **HARRERA**
- 18:00-18:30:** Debabarrena Ekinean! **ENPRESEN AZOKA**ri bisita
- 18:35-18:40:** Ekitaldiaren **HASIERA**
- 18:40-18:50:** **ONGI-ETORRIA**, Eibarko alkate Miguel de los Toyos-en eskutik
- 18:50-19:30:** **BUSINESS ANGELS EUSKADIN**, enpresa proiektu berriak finantzatzeko eta inbertsio pribaturako modu berriak. **Hizlariak:**
  - Josean Arratibel, **BAN** Euskadi ADEGIko kudeatzailea
  - Iñaki Azpiaz, **BAN** Euskadiko aholkularia
- 19:30-19:50:** Debabarreneko **ENPRESA ESPERIENTZIA BERRITZAILEAK**:
  - Lizzura - Luxury and elegante for pets
  - Aupa mediku - estetika zentroa - teknologia berriak
  - Ana Quilez - Quill Events
  - Proyecto Gilco Protektions - Makinariarentzako babes sistemak
- 19:50-20:00:** **DEBABARRENA EKINEAN!** eta **BAI INDUSTRIARI!** ERREKONOZIMENDUAK
  - Sarrera: Debegesako **BALOREEN PROIEKTUA** gaineko hitzaldia, Juan Angel Balbás Debegesako Zuzendari Nagusiaren eskutik
  - **IRAUNKORTASUNA** edo nekazentzintasuna. Saria emango du Jose Luis Arizaga Sorluzeko alkateak
  - **TALDEAN LAN EGITEA**. Saria emango du Ovidio Campello Elgoibarko Udateko Mahai Sektorialeko lehendakariak
  - **PLUS EKIMENA**. Saria emango du Mertxe Garate Eibarko Udateko Industria, Enplegua eta Merkataritza Batzordeko lehendakariak
  - **BAI INDUSTRIARI!** Saria emango du Nuria Delgado Caja Rural de Navarra zonaldeko arduradunak
- 20:00-20:10:** Ekitaldiaren amaiera eta **lunch-a**

ekiozu jarri zure ametsak lanean

teknologia zure aliatua da  
ezagutza zure bazkidea da

sormena zure energia da

Antolatzaileak

**Debegesa** **Debabarrena Ekinean!**

Babesleak




**IZENA EMATEKO:** [debegesa2010@gmail.com](mailto:debegesa2010@gmail.com) edo 944 700 743

# PowerShift:

Guztiak proba dezaketen ikuskizuna diharugu prestaten

Aldatzea ez zaitzu ezer kostatuko



Inoiz ez duzu halakorik probatu

## PowerShift:

### AUTOMOVILES KONDIA

Feel the difference

Probak erreserbatzeko Telf. 617.32.78.88

EIBAR IURRETA-DURANGO  
Tel. 943 207 650 Tel. 946 815 569

